

DOLORES REDONDO

HORI GUZTIA EMANGO DIZUT



erein

HORI GUZTIA
EMANGO DIZUT

20

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jasotzen du.

1. argitalpena: 2017ko martxoan

Jatorrizko izenburua:

Todo esto te daré

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Dolores Redondo Meira, 2016

Pontas Literary & Film Agency adostasunarekin

© Itzulpenarena:

Koro Navarro

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-206-3

L. G.: SS-374/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

HORI GUZTIA EMANGO DIZUT

DOLORES REDONDO

ITZULPENA:
Koro Navarro

erein

Eduardorentzat, beti.

*Aitari, zentzu guztietan baitzen hura galiziarra.
Amari, eta nire gurasoek familiaren desiren
kontra ere elkarri zioten maitasunari,
maitasun hark sendotu baitzidan
niretarrenganako harrotasuna, eta ezin
garaituzko maitasunean dudan fedea.*

Auzokoak zer esango ote duen kezkatzen da jenderik gehiena, ez ordea arloteak eta aristokratak esan dezaketenez. Arloteek eta aristokratek go-goak ematen diena egiten dute, izan daitezkeen ondorioetan pentsatu gabe. Ez naiz goi-mailako burgesiaz ari, beren fortuna festetan xahutzen duten horiez, baizik eta belaunaldiz belaunaldi besteren iritzia mesprextatuz hezi direnez.

Agatha CHRISTIE, *Chimneysko sekretua*

Etxeko gehien-gehienek egin ahal izan dute.

Agatha CHRISTIE, *Etxe okerra*

Michael Corleonek neurriak hartu zituen gerta zitezkeen guztien kontra. Haren planak biribilak ziren, eta bazekien pazientziaz eta xehetasun oro gogoan hartuta jokatzeko; uste zuen urte osoa izango zuela gauzak prestatzeko, baina patuak esku hartu zuen, eta ez haren alde. Akats baten ondorioz, denbora laburtu egin zen. Eta akatsa aitajauna izan zen, don Corleone handia.

Mario PUZO, *Aitajauna*

Zure ondoan biziko dira, eta hitz egingo dizute, nirekin zaudenean bezala.

Isolina CARRILLO, *Bi gardenia*

SALBAGAILUA



Agintea adierazten zuen ateko deiak. Zortzi joaldi, seguruak, bizkorrak, segituan arreta emango zaiola espero duenaren modukoak. Gonbidatu baten, langile baten edo banatzaile baten deiarekin sekula nahastuko ez litzatekeen dei-mota. Azken finean, halaxe espero izaten duela batek poliziak deitzea pentsatuko zuen gero.

Pentsakor geratu zen pare bat segundoz, azken esaldiaren amaierako kurtsore *nirñirkariari* beha. Ondo ari zen goiz hartan, azken hiru asteetan baino hobeto, zeren, ametitu nahi ez bazuen ere, gusturago lan egiten baitzuen etxean bakarrik zegoenean, ordutegirik gabe aritzen zenean, bazkaltzeko edo afaltzeko ohiko etenetatik libre, gorputzak eskatzen ziona egin ez besterik gabe. Halaxe izaten zen beti idazkeraren fase hartan, pare bat astean bukatua edukiko baitzuen *Tebasko eguzkia*, baita lehenago ere, dena ondo joanez gero. Eta une hartaraino istorio hura izango zuen bizitzako gauza bakarra, obsesioa, hark hartuko zuen gau eta egun, hartan baizik ez zuen pentsatuko. Halaxe izan zen nobela bakoitzarekin, sentsazio suspergarria eta suntsigarria aldi berean, adoratzen eta aldi berean ikaratzen zuen immolazio bat bezalakoa. Ekintza pribatua zen, eta lehendik ere bazekien egun haietan ez zela konpainiarik hoberena gertatzen. Begiak jasota, begiratu bizkor bat egin zuen idazten ari zen egongela eta sarrerako atea bereizten zituen korridorearen aldera, eta kurtsoreari erreparatu zion osterera ere: pilpiraka ari zela ematen

zuen, hurrena idatziko zituen hitzez zamaturik ordurako. Isiltasun engainagarri batek hartu zuen gela, eta itxaropen faltsu bat sortu zuen une batez, desorduko bisitariak amore eman balu bezala. Baina ez zuen amore eman; antzematen zion, atearen beste aldean, haren energia agintzaile eta geldiaren presentziari. Kurtzorera bihurtu zuen berriz begirata, eta eskuak teklatura inguratu zituen, esaldia bukatzeko erabakia hartuta. Ondorengo segundoetan, berriz ere harrera-gela txikian temaz durundatzen zen deiari kasurik ez egiteko aukera ere ibili zuen gogoan.

Ernecatzen, etenarengatik baino areago deitzeko modu lotsagabe harengatik, sarrerara abiatu zen eta eskutokiari amorrutiraka ireki zuen atea, etxeko atezainari zuzendutako birao bat murmurikatuz hortzen artean, behin baino gehiagotan esan baitzion ez zitzaizkiola batere gustatzen etenak lanean ari zen bitartean.

Bi guardia zibil ziren, gizona eta emakumea, uniforme zuzenak, eta pauso bat egin zuten atzera gizonak atea ireki zuenean.

–Egun on. Hemen bizi al da Álvaro Muñiz de Dávila? –galdetu zuen gizonak, begiratu bizkor bat eginez segituan eskuaren ahurrean desagertu zitzaion txartel txiki bati.

–Bai –erantzun zuen Manuelek, haserrea bertatik ahaztuta.

–Senidea zara?

–Senarra naiz.

Guardia zibilak begiratu bizkor bat egin zion bere lagunari, Manueli eskapatu ez zitzaion keinua, baina haren paranoia naturalak heldua zuen ordurako halako keinu bati garrantzia kentzeko moduko maila.

–Zerbait gertatu al zaio?

–Ni Castro alferreza naiz, eta nire laguna Acosta sarjentua. Utziko diguzu sartzen? Barruan hobeto hitz egingo dugu.

Manuel idazlea zen, eta neke handirik gabe gara zezakeen eszena hura; bi guardia zibil uniformeaz jantziek, etxean sartzen uzteko eskatuz esan beharrekoa esatera, ezin zuten albiste onik ekarri.

Manuelek baietz egin zuen eta albo batera apartatu zen. Ikaragarri handiak ageri ziren guardiak, beren uniforme berdeekin eta bota militarrekin, harrera-gela estuan. Zolek kirrinka egin zuten parketaren berniz ilunaren gainean, marinel mozkorrak balira bezala barku txikiegi batean orekari eutsi nahian. Korridorean barna, egongelara gidatu zituen Manuelek, non laneko mahaia baitzeukan; baina guardiak sofara eraman ordez, kolpetik gelditu, atzera jiratu, ia-ia haiekin txoke eginez, eta setaz errepikatu zuen:

–Zerbait gertatu al zaio?

Ez zen galdera; uneraren batean, sarreraren eta egongelaren arteko bidean, zera hark galdera izateari utzi zion eta ia erregu bihurtu zen, erretolika astun bat, Manuelen gogoak behin eta berriz errepikatzen zuena: “Mesedez, ez; mesedez, ez; mesedez, ez”. Eta errepikatu egiten zuen, ondo jakin arren erreguak ez zuela ezertarako balio. Ez zuen balio izan minbiziak bederatzi hilabete eskasean arreba irentsi zionean. Arreba, sukarrak erretzen eta leher egina, baina berari adorea emateko erabakia hartuta beti bezala, kontsolatzeko, zaintzeko, burkoaren biguntasunean murgilduta aurpegia, jadanik heriotzaren mendeko, txantxetan aritzen zitzaion: “Mundu honetara heltzeko behar izan nuen denbora berbera beharko dut mundu honetatik joateko”. Erreguka jarraitu zuen Manuelek, umiliatuta, botere goragoko eta alferreko bati hizketan, eta harixe errezitatzen zion formula zaharra, oinak arrastaka zerbitzari lausengari baten moduan, sendagileak bere arreba ez zela gau hartatik igaroko esan zion bulego txiki eta epel hartarainoko bidean. Ez, alferrik zen, nahiz eta eskuak lotu eskaera

mutu batean, eusteko erabakia hartuta, hitzak entzuten zituen bitartean, ezin saihestuzko epaia, inongo gobernariaren deirik espero ez zuena.

Egongelako bi paretak osorik estaltzen zituen liburutegi bikaina miresten entretenu zen alfereza, begiratu bat egin zion lan-mahaiari eta gero berriz ere Manueli erreparatu zion.

–Hobe zenuke esertzea –esan zuen guardiak, keinu bat eginenez sofaren aldera.

–Ez dut eseri nahi, esadazu behingoz esan beharrekoa –esan zuen Manuelek, eta konturatu zen gordin samar ari zela; hala, biguntzeko, hasperen bat egin eta erantsi zuen–: mese-dez...

Guardiak zalantza egin zuen, deseroso. Manuelen besaburuaren gaineko puntu batera eraman zuen begiratu, eta goiko ezpainari kosk egin zion hitz egiten hasi aurretik.

–Begira, zure, zera...

–Zure senarra –isilarazi zuen emakumeak, egoeraren ardurua hartuz, begi-bazterretik lagunaren arindura gaizki ezkutatuari igartzen zion bitartean–. Asko sentitzen dugu, baina albiste txarrak dauzkagu. Sentitzen dugu jakinarazi beharra Álvaro Muñiz de Dávila jaunak trafiko-istripu larri bat izan duela gaur goizaldean. Anbulantzia heldu denerako hila zen. Asko sentitzen dut, jauna.

Sarjentuaren aurpegiak obalo akasgabea eratzen zuen, ilea lepondoan jasota zeukan moduak azpimarratua, xerlo batzuk itzuri egiten hasiak ziren moño batean. Primeran aditu zuen Manuelek, Álvaro hila zen; alabaina, zenbait segundoz, eta bere buruarekin harrituta, emakume haren edertasun bareaz aritu zen gogoetan, eta gogoia osorik hartu zion ideia aztortzaile hura hitzetan adierazteko zorian ere egon zen. Oso ederra zen, nahiz eta ez zuen ematen bere hazpegien simetria miragarriaz jakitun, eta ezjakin hark ederragoa ere egiten

zuen. Geroago berriz pentsatuko zuen hartan, txundituta konturatuz nola topatu zion buruak, bere zentzu ona salbatzeko eginahalean, larrialdietako irtenbide bat; nola eman zituen segundo batzuk aurpegi femeninoaren marrazki bikainean babesturik. Huraxe izan zen, Manuelek oraindik ez bazekien ere, eutsi zion lehen salbagailua. Une bat besterik ez zen izan, une baliotsua, baina aski ez jadanik gogoan eratzten ari zitzaion galdera-oldeari eusteko. Alabaina, gauza bakarra esan zuen:

—Álvaro?

Sarjentuak besotik heldu zion —atxilotuei heltzen zaien bezalaxe heldu ziola pentsatuko zuen Manuelek gero—, eta haren erresistentziarik gabe, gidatu zuen sofaren aldera, egin zion bultzada arin bat besaburuan, eta, eserita geratu zenean, aldamenean jarri zitzaion.

—Istripua goizaldean gertatu da. Autoa atera egin da nonbait errepidearen tarte zuzen batean, ez zen ikusgaitasun-arazorik, ez dirudi beste ibilgailurik izan denik tartean, eta, Monfortetik honen berri eman diguten lankideek diotenez, bolantean lo geratu dela adierazten du denak.

Adi-adi zegoen Manuel, eginahalak eginez emakumearen azalpenaren xehetasunak bereganatzeko, eginahalak eginez barnean gero eta ozenago oihu egiten zion ahots-korua ez aditzeko: “Álvaro hil da”, “Álvaro hil da”, “Álvaro hil da”.

Emakumearen aurpegi ederra ez zen jadanik nahikoa. Begi-bazterretik alfereza ikusten zuen Manuelek, entretenituta bere lan-mahaiaren gaina betetzen zuten objektuei begira. Baso bat kafe-kondarrekin eta koilara barruan, sari literario ospetsu baten zeremoniarako gonbidapena baso-azpikotzat erabilia, ordu batzuk lehenago Álvaroekin hitz egiteko erabili zuen sakelako telefonoa eta kurtsore irrikatsua goiz hartan idatzi zuen azken lerroaren amaieran ñirñirka, pentsatuz,

ergel gizajoa, oso ondo ari zela. Eta orduan erabaki zuen ez zuela jadanik inporta, ezerk ez zuen inporta Álvaro hila baten, eta hala behar zuen, sarjentu hark halaxe esan zion-eta, eta halaxe errepikatzen zuen isildu gabe buruan sartu zitzaion kordu grekoak, *crescendo* gorgarri batean. Orduan, bigarren salbagailua heldu zen.

–Monforte esan duzu? Baina hori, zera...

–Monforte, Lugoko probintzian. Hango kuarteletik deitu digute, nahiz eta istripua, berez, Chantadako udalerrri txiki batean gertatu den.

–Ez da Álvaro. –Adierazpidearen biribiltasunak alferezaren arreta erakarri zuen, eta, idazmahaiko objektuenganako interesa galtuta, Manuelengana jiratu zen, harrituta.

–Zer diozu?

–Ezin litekeela Álvaro izan. Nire senarra Bartzelonara joan zen herenegun, bezero batekin elkartzera. Enpresa-marketinean aritzen da. Zenbait astez hotel-talde katalan bantentzat lanean aritu da, zenbait sustapen-ekitaldi egin behar zuten, eta gaur goizean, lehen orduan, aurkezpenerako bilera zeukan, eta hortaz, ezin zen inola ere Lugon izan, gaizki uler-turen bat izan behar du. Bart arratsean hitz egin dut berarekin. Gaur goizean ez dugu hitz egin, lehen orduan bilera bat zuelako, eta ni ez naizelako goiz jaikitzen, baina deitu egingo diot.

Zutitu zen eta aurrera egin zuen alferezaren aldamenetik igaroz, kasurik egin gabe guardiek trukatu zituzten begiratu gurutzatuetan beruna bezain astuna zen barkaberatasun-zamari. Idazmahaira ailegatu zenean, esku traketsekin hasi zen mahaiaren gainean zeuden traste guztien artean bila, koilarari soinua atereaz kafearen kondarrek jadanik ezin ezabatuzkoa zen arrasto bat marraztu zuten basoaren ertzaren kontra. Telefonoa hartu zuen. Pare bat tekla jo eta adi geratu zen,

sarjentuari begia kendu gabe. Aurpegi abailduaz begiratzen zion guardiak.

Manuel zain geratu zen, deiaren seinalea agortu zen arte.

–Bileran egongo da, horregatik ez du hartzen... –saiatu zen azaltzen.

Sarjentua zutik jarri zen.

–Manuel duzu zuk izena, ezta?

Gizonak baietz egin zuen, zama bat onartuz bezala.

–Manuel, zatoz hona, eseri zaitetz nire ondoan, faborez.

Gizona sofara itzuli zen, telefonoa esku artean zuela oraindik, eta emakumeak eskatutakoa egin zuen.

–Manuel, ni ere ezkontua nago –esan zuen, begiratu labur bat eginez bere ezkontza-eraztunaren urre ia mateari–, eta ondo asko dakit, nire lanagatik batez ere, behin ere ez dugula seguru-seguru jakiten zertan ari den gure bikotekidea. Hori ikasi egin behar da, horrekin bizitzen ikasi behar da, zeure burua segundoero segurtasun-faltagatik torturatu gabe. Izango da arrazoiren bat, nola ez da izango, azaltzen duena zergatik zegoen zure senarra han eta zuri ez dizun esan, baina bada-kigu seguru bera dela. Inork ez dio telefonoari erantzun gure Monforteko lankideek daukatelako zaintzapean. Zure senarraren gorpua Lugoko Institutu Anatomiko Forentsera eramanez, baina horrez gainera senide baten identifikazio positiboa ere badaukagu. Dударik batere gabe, Álvaro Muñiz de Dávila da, berrogeita lau urteko gizona.

Buruarekin ukatu zuen Manuelek Acosta sarjentuaren arrazoibide bakoitza, Álvaroi buruzko okerra eraztun haren distira galduari egozten zion bitartean, bikote-harremanei buruzko balio absolutuak aldeztara bultzatzen baitzuen sarjentua. Ordu batzuk bakarrik pasatu ziren Álvaroekin azkenekoz hitz egin zuenetik, eta Bartzelonan zen, ez Lugon, zer demontre ibili behar zuen Álvarok Lugon. Manuelek

ezagutzen zuen bere senarra, bazekien non zegoen, eta ez zegoen Lugoko errepide zikin batean. Gorroto zien bikoteei buruzko absolutuei, gorroto zien gauza guztiei buruzko absolutuei, eta hasia zen sarjentu marijakintsu hura gorrotatzen.

–Álvarok seniderik ez du –ezeztatu zuen.

–Manuel...

–Tira, senideak izango ditu, mundu guztiak bezala, baina inolako harremanik ez dauka senideekin, erlazorik batere ez. Halaxe zen Álvaro eta biok elkar ezagutu baino askoz ere lehenago ere, Álvaro, oso gaztea zela, independizatu zenetik. Oker zaudete.

–Manuel, zure senarraren telefonoan zure izena eta zure telefono-zenbakia ageri dira Aa erreferentziarekin –azaldu zion emakumeak eramankor.

–Aa erreferentzia... –xuxurlatu zuen Manuelek.

Ondo gogoratzen zen, aspaldiko gauza zen. Aa erreferentzia, “Abisatu”, DGTtik bidalitako gomendioa zen, istripu bat izanez gero nori jakinarazi jakiteko. Bere telefonoko agendako tekla zanpatuta, hango Aa ikusi zuen, Álvaro. Segundo batzuk eman zituen izena osatzen zuten letrak banaka-banaka berri-kusten, eta begiratua lainotzen sumatzen zuen begietan pila-tzen hasitako malkoen pisuarekin. Orduan, beste salbagailu bat heldu zen.

–Baina inork ez dit deitu... Deitu beharko zidaten, ezta?

Alferezak ia-ia pozik ematen zuen hitza hartzeko abagunea zuelako.

–Halaxe egiten zen duela pare bat urte arte, telefonoz jakinarazten zitzaion zegokion pertsonari, eta, halakorik ez bazen, “etxea” edo “gurasoak” markaturiko telefonora deitu eta albistea ematen zen... Baina oso traumatikoa zen, eta behin baino gehiagotan dei haiek bihotzekoak eragin zituzten,

istripuak... edo desiratzen ez ziren erreakzioak... Hobetzen saiatzen gara. Protokoloak identifikazio positiboa eskatzen du orain, zenduaren etxetik gertuena dagoen kuartelera abisatzen da eta bi guardia joaten gara beti, bat goi mailakoa, kasu honetan bezala, eta albistea zuzenean ematen dugu edo identifikaziora laguntzen diogu dagokion pertsonari.

Orduan, dantza hark, eseri, zaude geldi, dantza hark guztiak beste helbururik ez zeukan: protokoloa zen, munduko albisterik txarrena emateko antolatua; hango hiru lagunetako bik bakarrik ezagutzen zuten protokoloa zen, eta harentzat, orain bazekien, ez zen inolako errekurtsorik.

Zenbait segundoz geldi eta isilik geratu ziren guardiak, alferrezak emakumeari presa-keinu bat egin zion arte.

–Senideren bati edo lagunen bati deitu nahiko diozu beharbada, zurekin egon dadin... –iradoki zion emakumeak.

Erdi ergelduta begiratu zion Manuelek sarjentuari. Nekez ailegatzen zitzaizkion haren hitzak, beste dimentsio batetik hitz egingo balio bezala, edo urpetik.

–Orain zer egin behar dut? –galdetu zuen.

–Esan dizudan bezala, gorpua Lugoko ospitaleko Institutu Anatomiko Forentsean dago. Han esango dizute zer urrats egin behar duzun, eta gorpua emango dizute hobiratzeko.

Inondik ere ez zuen adorea itxuratuz, Manuel zutik jarri zen eta sarreraren aldera abiatu zen, bere atzetik joatera behartuz guardiak, bakarrik geratu orduko arrebari deituko ziola aginduz. Ondo jakinik lasai behar zuela egon guardiak gainetik kendu nahi bazituen, bostekoa eman zien. Agenteen begiratu miatzaileari igarri zion, eta ez zen ondo adosten agurtzean egin zituzten keinu atseginekin. Eskerrak eman zizkien berriz ere, eta atea itxi zuen.

Zenbait segundoz zain geratu zen, zur epelean bermatuta, guardiak ere adi egongo zirela beste aldean pentsatuz.

Inoiz behar adina gelditu ez zen angelu hartatik beha geratu zen, nola korridore txikia irekitzen zen egongelara eta argitasunez lehertzen zen beste muturrean, zurtoinetan estututako lore-sorta bat balitz bezala. Azken hamabost urtean Álvaroekin partekatu zuen etxebizitza zen, eta, etxeko behatoki ezezagun hartatik ikusita, ikaragarri handia iruditu zitzaion. Argia oldeka sartzen zen leihoetatik eta altzarien angeluak lausotzen zituen, haien zuritasuna urtuz eta pareta eta sabaiarenarekin bateratuz; eta une hartan bertan, lurralde maitatu hark, lurralde ezagun hark, beraren etxea izateari utzi zion eta eguzki izoztuzko ozeanoa bihurtu zen, gau islandiar deabruzkoa, eta Manuel umezurtz sentitu zen berriz ere, ospitaleko beste gau hartan bezala.

Arrebari deitu. Irribarre mikatz bat egin zuen hartan pentsatzean, oxala deitu ahal balio. Ondoeza sumatu zuen, bazetorkion bularrean gora, altzoan pausatu nahi zitzaion animalia bero eta zital baten moduan, eta begiak malkoz bete zitzaizkion konturatu zenean hilak zirela deitu nahi liekeen bi pertsonak.

Negarra egiteko gogoari eutsiz, egongelara itzuli zen, lehengo leku berean eseri zen eta telefonoa hartu zuen mahai txikitik. Pantaila aktibatu zuenean, Álvaroren izena agertu zen dei-aukera moduan. Une batzuetan hari beha egon ondoren, hasperen egin eta beste izen bat bilatu zuen agendan.

Meiren emakume-ahots gozoak erantzun zuen beste aldean. Álvaroren idazkaria zen Mei Liu, bazeramatzan hamar urtetik gora postu hartan.

–A, kaixo, Manuel, zer moduz zaude? Nola doa zure azken nobela? Dagoeneko irakurtzeko irrikaz nago. Álvarok esan dit sinestezina izango dela...

–Mei –eten zuen Manuelek neskaren erretolika–, Álvaro non dago?

Pare bat segundoko isilune bat izan zen linearen beste aldean, eta orduan Manuelek jakin zuen Meik gezurra esango ziola, eta argitasun-une horietako bat ere izan zuen, zeinean, instant batez ikus baitezake batek mundua mugiarazten duen makineria, gure begietara, errukitsu, ia bizitza osoan ezkutatzen zaion hori.

–Álvaro? Ba... Bartzelonan dago.

–Ez niri gezurrik esan, Mei –eskatu zion Manuelek, zakarkeriaz baina xuxurlaka ia.

Lineako isiltasunak neskaren egonezinaren segurtasuna ekarri zion, eta argi sumatu zuen nola baliatzen zuen etena aitzakiaren bat etsi-etsian bilatzeko, era horretan segundo batzuk gehiago izango baitzituen pentsatzeko.

–Ez dizut gezurrik esaten, Manuel... Zergatik esan behar nizun nik gezurra? –Zorrotzagoa zen orain Meiren ahotsa, negarra egiteko puntuan balego bezala. Aitzakiak, galderak... Disimulu-bide guztiak, erantzun zuzena saihesteko-. Zera... Bartzelonan dago, hotel-kate katalan horren zuzendaritzakoekin daukan bileran.

Behatz-kozkorrak zuritu zitzaizkion arte estutu zuen Manuelek telefonoa eskuan, begiak itxi eta eginahalak eginez eutsi zion telefonoa urrutira bota, txiki-txiki egin, mila puskatan hautsi eta lineatik iristen zitzaizkion gezurrak isilarazteko desirari. Hizketan hasi zen, doinua menderatzen saiatuz, amore ez emateko behintzat garrasi egiteko gogoari.

–Oraintxe bertan atera dira nire etxetik bi guardia zibil, eta esan didate Álvaro ez zegoela Bartzelonan, gaur gauean hil dela trafiko-istripu batean eta Lugoko gorpu-biltegian dagoela... Beraz, utzi alukeriak eta esadazu, zuk nahitaez jakin behar zenuen-eta, Álvaro non zegoen? –Arrastaka esan zituen hitz bakoitzaren silabak, xuxurlatuz, amorrazioari eusteko.

Emakumearen ahotsa ulu batean hautsi zen, eta Manuelek ia-ia ezin izan zuen ulertu zer esaten zuen.

–... Askok sentitzen dut, Manuel, askok sentitzen dut.

Manuelek telefonoa eskegi zuen, eta Mei, hirugarren salbagailua izan zitekeen hura, ez zen salba-gerriko gertatu.

EGUZKI ISLANDIARRA



Tristura-usaina zerion itxarongelari. Parez pare jarritako plastikozko aulkien bi ilarek justu-justu uzten zioten tokia hulgune komun estu bati, non hatsak eta gorputz-humore arreek lurrin kiratseko hodei batean flotatzen baitzuten, zain zeudenen aurpegi minduetan lausotuz. Arrunt atsekabetuta, korridorearen aldera jo zuen Manuelek berriz, eta begiratuarekin segitu zion atezainarengana, eta hark, baietz eginez, ostera ere adierazi zion han itxoin behar zuela. Baztertu egin zuen espazio estua eserleku libre bakarreraino gurutzatzeko ideia, zain zeudenen belauak eta oinak saihestuz ibili beharko baitzuen, eta aitzakia-arrosario bat aletuz hezur haien artean aurrera egiteko. Zutik geratuko zela erabaki zuen, eta, ez baitzuen jarraitu nahi begiratu guztien ardatza izaten, paretan bermatu zen, sarreatik gertu, arnasa hartzeko moduko aire-kopuru bat eskuratu ahal izateko, nahiz eta hartara zaindariaren arau zorrotzaren kontrolaren mende jarraitzearen prezioa ordaindu behar.

Areto haren luzapena balitz bezala, ur kloratuaren gisan ilundurik egin zion harrera Lugoko zeruak hirira heldu zenean. Harrera hotza, eta harekin batera hogeia gradu eskas; Madrilgo bero astunarekiko eta argitasun itsugarriarekiko kontrastean, ia-ia aurrez antolaturiko gauza iruditu zitzaion, giro estutzaile eta lazgarria sortzeko xedea zuen baliabide literario bat balitz bezala.

Aireporturik ez zen Lugon. Santiago de Compostelaraingo joatea hegazkinez pentsatu zuen, hura baitzen hurbilena, eta

auto bat alokatu gero Lugoraino; baina barruan zeukana, oraindik izendatzeko gauza ez zen zera hura, ezin zen zain egon hurrengo hegaldirako falta ziren bi orduz, eta ez zen ka-bitzen hegazkin baten kabinan.

Jantzitegia irekitzea izan zen zailena, bien trajeen artetik bi-daia-zorro txiki bat ateratzea eta zalaparta batean derrigo-rrezko gauzak hara botatzea, hala iruditu zitzaion Manueli. Geroago ikusi zuen lau gauza alferreko arrastatu zituela bere ihesaldian, beharrezko gehienak ahaztuta. Ihes-sentipena are-ago egin zitzaion buruan berrikusi zituenean etxean eman-dako azken minutuak. Madrildik ateratzen ziren hegaldien kontsulta bizkorra, presaka prestaturiko zorroa eta komoda-ren gainean zegoen bien argazkiari ez begiratu nahi izana. Orain ezin zuen gogotik atera. Bion lagun batek hartu zuen aurreko udako arrantza-egun batean. Manuel distraiturik ze-go-en itsasoaren azal zilar-koloreari begira; Álvaro, gazteagoa, mehea, are argiagoa eguzkiarekin ile gartzaina argia, berari be-gira zegoen, irribarrez, bere irribarre sekretu eta txiki harekin. Álvarok jarri zuen lauki batean, baina berari ez zitzaion hain-beste gustatzen. Irudi haren aurrean, irudipena zeukan, beti bezala, despistatuegia zela, une baliotsu bat galdu zuela, esa-nahiz zamatua eta sekula berriz ezin berreskuratuko zuena. Bere bizitza propioan guztiz inoiz egon ez zelako susmoa be-rresten zion kamerak harrapatu zuen istant labur hark, eta ideia hura gaur epaia zen ia-ia.

Areto hartan itxoin beharraren gelditasunak bat-bateko balaztatze baten irudipena sortzen zion, errepidera sartu zen abiadarekiko kontrastean, minutu bat gehiago edo gutxiago izateak aldatuko balu bezala Álvaro hila egotearen egitatea. Ametsetan bezala korritu zuen etxea, begiratu gela bakoi-tzean pausatuz, Álvarorenak izan ziren, nolabait ere Álvaro ziren gauzen presentziaren egiaztapen bizkorrean; haren

argazkigintzako liburuak, haren marrazketa-koadernoak mahai gainean, eserleku baten bizkarretik zintzilik zegoen jertse zaharra, etxean egoteko janzten zuena eta bota nahi ez zuena, nahiz eta kolorea galdua izan eta eskumuturretan urratua egon. Ia harrituta egon zen objektu bakoitzari beha, han jarraitzen zutelako Álvaro ez bazegoen ere, hura faltatzean, objektuek existitzeari utzi edo lurrindu beharko balute bezala. Begiratu azkar bat egin zion bere mahaiaren gainari, automatikoki hartuz bere zorroa, sakelako telefonoa eta kargagailua. *Tebasko Eguzkia* eta goiz hartako lana –ondo egiten ari zela uste izan zuen hura– gorde ez zituelako segurtasuna zen agian gauza guztietan harrigarriena. Gero, zorigaiztoko hiri haren izena bere autoko nabigatzailean sartu behar izanaren zama higuin garria. Ia bostehun kilometroko isiltasuna, lau ordu eta erdi eskasean korrituak, erantzun gabe galtzen utzi zituen Meiren deiek bakarrik etenak. Etxeko argi guztiak itzali ote zituen ere ez zekien seguru.

Aztoratuta aditu zuen gizon baten negarra. Emaztea izan behar zuenaren lepoan ezkututzen zuen aurpegia, eta Manuelek ezin ulertu zituen hitzak xuxurlatzen zituen. Ikusi zuen nolako neke-keinuz laztantzen zion emakumeak lepondoa gizonari, baita aretoan zeuden batzuen begiratuak ere, nola arnasa sakon hartzen zuten, ezpainak estutuz, arnastetuka, oinazeari eusten dioten umeen moduan.

Berak ez zuen negarrik egin, ez zekien hori normala zen edo ez. Une jakin batean, guardiak etxetik joan zirenean hain zuzen ere, negarra egitekotan egon zen, bere begi ikaratuaren aurrean ikusi zuenean nola lausotzen ziren bere etxearen mugak taxutzen zituzten lerroak. Baina negarra egiteko berotasuna behar zen, edo bai behintzat nolabaiteko suharta-suna; eta bihotzaren parte bat ere izoztu zion etxeaz jabetu zen

hotz ikaragarriak. Osorik izoztea nahiko zuen, etxea inbaditu zuen mamu izotzezkoa gauza izatea urratzeko bularrean tau-padaka ari zitzaion badaezpadako giharraren zuntzak ere. Baina, haren orde, lozorro kimiko moduko bat ipini zion odolaren isuriaren lekuan; bizitza-hari miserable bat, zekenkeriaz zamatua, une hartan segurtasunak baino gehiago zalantzak garraiatzen zituena.

Batere akatsik gabeko trajez jantzitako bi gizon zeuden zain mostradorearen ondoan. Manuelek ikusi zuen nola haietako bat zenbait pauso atzerago geratzen zen, eta bitartean besteak hitz batzuk murmurikatzen zituen, hain isilka non atezaina aurrera makurtzera behartu baitzuen aditu ahal izateko. Buraiaz baietz eginez, bisitariengan zuen interesa ezkutatu gabe, itxarongela seinalatu zuen.

Zaindariari galdetu zion gizonak hitz batzuk trukatu zituen bizkor-bizkor bestearekin, eta biak joan ziren aretora.

–Manuel Ortigosa?

Doinu ongi heziak eta traje garestiek aretoan zain zeuden guztien arreta erakarri zuten. Manuelek baietz egin zuen, pentsatuz gizon haiek ondoegi jantziak zeudela medikuak edo poliziak izateko.

Hitz egin zuen gizonak eskua luzatu zion.

–Eugenio Doval naiz, Adolfo Griñán jauna aurkezten dizut –esan zuen.

Azken honek ere bostekoa eskaini zion, eta hitza hartu zuen:

–Hitz egingo al dugu pixka batean?

Aurkezpenak ez zuen ezertxo ere argitu, eta Manuelek susmatu zuen bezala, bi gizon haiek ez zirela sendagileak besterik ez zion jakinarazi. Manuelek keinu bat egin zuen aretoaren eta bere ingurukoaren aldera, heldu berriak sartzera gonbidatuz.

Begiratu lotsagabeak kontuan hartu gabe, hodei lurrin-tsua gainetik jaso zituen Griñánek begiak, sabaiaren zati eder bat hartzen zuen arrasto hori ertz-ilun batean pausatu zituen arte.

–Jainkoarren! Hemen ez. Egiaz sentitzen dugu lehenago ez ailegatzea eta trantze honetatik zu bakarrik pasatu behar izana. Etorri al da inor zurekin? –galdetu zuen, nahiz eta, Manuelen inguruko pertsona ilunak aurrenekoz azterturik, gauza segurutzat eman zuen ezetz.

Manuelek ezetz egin zuen buruarekin.

Griñánek ostera ere sabaiko arrastora jaso zituen begiak.

–Goazen kanpora.

–Baina hemen itxoiteko esan didate... –esan zuen Manuelek.

–Horregatik ez kezkatu, oso gertu egongo gara, eta jakin behar dituzun alderdi batzuen berri eman ahal izango dizugu –esan zuen Dovalek, solaskidea lasaituz.

Erantzunen aginduak Manuelen uzkurtasuna gainditu zuen, eta haien atzetik atera zen aretotik, aretokoan begiratu hezeak bizkarrean lerratzen sumatuz, eta galdezka bere artean zein demontre ote ziren bi gizon haiek. Hitzartuta baleude bezala, isilik abiatu ziren hirurak, igaro ziren kontroletik –hiru gizonei begia kendu gabe jarraitzen zuen atezainak han– eta korridorearen amaierara heldu ziren, non espazioa gunebibildu batean irekitzen baitzen, eta freskagarri-makina bat eta kafe-makina bat sartu zituzten nola edo hala. Dovalek keinu bat egin zuen, presentzia argitsu haiek seinalatuz.

–Zer edo zer hartu nahi?

Manuelek ezetz egin zuen, aretoaren aldera jiraturuz urduri.

Griñán izenekoa jarri zitzaion aurrean.

–Notarioa naiz, zure senarraren auziez arduratzen nintzen eta, gainera, haren testamentu-betearazlea naiz. –Serio-serio erreparatu zion Manueli, gerrako ohoreak errezitatu berri balitu bezala.

Manuel txundituta geratu zen. Batere asaldatu gabe behatzen zion gizona aztertu zuen zenbait segundoz. Dovalengana eramán zituen orduan begiak, erantzun bat aurkituko zuelakoan harengan, edo, agian, burla-zantzu bat, broma baten biktima zela adieraziko zion zerbait.

–Badakit hau dena sorpresa dela zuretzat –onartu zuen Griñánek–. Don Álvaroren ondarearen kudeaketaren erantzule gisa, badakit zuen harremanaren gorabeheren berri.

–Zer esan nahi duzu? –galdetu zuen Manuelek irudikor.

Eramankor ametitu zuen Notarioak Manuelen errezeloa.

–Badakit urte batzuk direla ezkondu zinetela, eta askoz gehiago elkarrekin bizi zinetela. Esan nahi dizudana da, hain zuzen ere, badakidala orain azaldu behar dizkizudanak berriak direla zuretzat.

Manuelek hasperen egin zuen eta besoak gurutzatu zituen, defentsazko keinu argian. Ez zen Manuelen egunik onena, inondik ere. Meirekin izandako elkarrizketan galdu zuen Álvaroren heriotzaren berri izan ondoren geratzen zitzaion kemen eskasa, baina prest zegoen armistizio bat sinatzeko argi pixka bat ematen zionarekin, ulertu ahal izateko zergatik zegoen bere senarra munduko bazter urrun bateko gorpu-biltegiko mahai metalikoaren gainean hilik. Mostradorearen aldera jiratu zen une batez, urrutitik miatzen jarraitzen zuen atezainaren aldera, eta berriz ere bi gizonen aldera erreparatu zuen.

–Esango al didazue zer ari zen Álvaro hemen? Zer ari zen ordu horietan errepide horretan? Baduzue horretarako erantzunik?

Griñánek Dovali begiratu zion une labur batez, eta honek, kopetilun, pauso bat eman zuen haren aldamenean jartzeko.

–Álvaro hemen zergatik zegoen azaltzen duen arrazoa da hementxe jaio zela, eta hementxe dagoela haren familia-etxea. Ez dakit nora zihoan istripua izan zuenean, baina Guardia Zibilak esango zizun bezala, ez dirudi beste ibilgailurik nahastu zenik istripuan, eta bolantean lo geratu zela adierazten dute datu guztiek. Lastima da, berrogeita lau urte, bizitza osoa aurretik, mutil zoragarria zen eta nik estimazio handia nion.

Gogora etorri zitzaion orduan Manueli irakurri zuela Álvaroren NANean bere jaiolekuaren izena. Sekula lotua egon ez zen tokia. Ez zitzaion iruditzen inoiz aipatu zuenik. Izan ere, zertarako aipatu behar zuen? Elkar ezagutu zutenean, argi esan zion familiak ez ziola onartzen homosexuala izatea, eta, beste askok bezala, Madrila ailegatu eta askatasunean bizitzen hasi zenean, iraganarekiko lotura oro urratu zuela.

–Bartzelonan egon behar zuen ordea, zer ari zen hemen? Nik dakidala urteak dira bere familiarekin harremanik ez duela.

–Zuk dakizula... –esan zuen Griñánek isilka.

–Zer esan nahi didazu? –galdetu zuen idazleak minduta.

–Begira, Manuel, horrela dei diezazuket? Beti aholkatzen diet nire bezeroei zintzoak izateko, egia esateko batez ere senarrari edo emazteari, azken finean haiekin bizituko dira eta haiek pairatuko dituzte lagunaren heriotzaren gorabeherak. Álvaroren kasua ez zen salbuespena izan, baina ni ez naiz nor jokatu zuen moduan jokatzera bultzatu zuten arrazoiak eta motiboak epaitzeko. Neure gain hartu dut tsarraren postariaren eginkizuna, eta zuretzat daukadan informazioaren garraiatzailea izateak ez nau zure begietan atsegina egingo, baina hauxe da nire lana, hitza eman nion Álvaroori, eta bukaera arte beteko dut. –Eten dramatiko bat egin eta jarraitu

zuen—: Álvaro Muñiz de Dávila Santo Toméko markes-titulua hartu zuen duela hiru urte, aita, aurreko markesa, hil zenean. Markesgo hau Galiziako titulurik zaharrenetako bat da, familiaren pazioa istripua gertatu zen tokitik kilometro gutxira dago, eta oraingo honetan nik ez banekien ere hemen zenik, zalantzarik gabe esan diezazuket maiz bisitatzen gintuela, bere betebeharez arduratzera etorrira.

Manuelek, liluratuta aditu baitzuen notarioaren hitz ba-koitza, ezin izan zuen burlazko keinu bat ezkutatu esan zue-
nean:

—Zuk adarra jo nahi didazu.

—Benetan esaten dizut, egiazkoak dira esan dizkizudan hitz guzti-guztiak, eta aurkeztuko dizkizut frogak, ezeren du-darik baldin baduzu.

Manuel atzera jiratu zen urduri, atezainari begiratu zion, eta ostera ere Griñáni.

—Esaten didazu, beraz, nire senarra noblea zela, zer esan duzu, markesa? Etxaldeak, pazioak eta nik berririk ez dudan familia bat zeuzkala; emaztea eta seme-alabak ere bazituela besterik ez da falta —esan zuen ironiaz.

Gizonak eskuak jaso zituen suminduta.

—Ez, Jaunaren izenean! Esan dizudan bezala, Álvarok aita-ren titulua heredatu zuen hura hil zenean, duela hiru urte. Or-duan ezagutu nuen nik, familiaren auziez arduratzen hasi ze-
nean. Ulertu behar duzu nobleziako titulu bat arreta eman beharreko betekizuna dela, eta Álvarok arreta eman zion.

Manuelek kopeta zimurtua zeukan. Begien atzean mailuka hasi eta burezurretik laba beroaren gisan zabaltzen ari zi-tzaion buruko mina arindu nahian, behatz izoztuen puntak kopetaren erdira eraman zituenean nabaritu zuen.

—Guardia zibilek esan didate senide batek ezagutu duela gorpua.

–Bai, haren anaia Santiagok, hiru anaietan erdikoak. Álvaro zaharrena zen. Francisco, gazteena, aita hil eta handik gutxira hil zen; depresioa izan zuen eta arazoak zituen nonbait drogekin, gaindosi bat hartu zuen. Suerte txarrak gogor astindu du familia hau azken urteotan. Ama bizi da oraindik, baina ez dago batere ondo.

Buruko mina okerrera zihoakion Manueli.

–Sinestekoa ere ez da... Nola izan liteke hori dena hainbeste denboran gordeta edukitzea? –xuxurlatu zuen, zehazki inori mintzatu gabe.

Dovalek eta Griñánek goibelduta begiratu zioten elkarri.

–Ezin dizut lagundu, ez dakit zergatik erabaki zuen Álvaro horrela jokatzea, baina oso xedapen argiak utzi zituen hiltzen bazen egin behar zenaz, zoritxarrez gertatu den bezala.

–Zer esan nahi duzu? Zer adierazi nahi duzu, Álvaro hil behar zuela uste zuela nolabait ere? Mesedez, argi hitz egin, kontura zaitez zer egoeratan nagoen, oraintxe jakin dut nire senarrak, zeina oraintxe hil baita, nik ezagutzen ez nuen familia bat zeukala. Ez dut ezer ere ulertzen.

Griñánek baietz egin zuen, abailduta.

–Konturatzen naiz, Manuel, oso gogorra izan behar du honnek zuretzat. Alegia, bada testamentu bat Álvaroren azken borondateak arautzen dituena, eta hori, bestalde, ohiko gauza da haren posizioako pertsonen artean, segurtasunagatik egiten da. Bere betekizunak onartu zituen unean idatzi genuen lehen testamentua, eta urteotan zenbait aldiz aldatu da dokumentua, zer egoeratan zegoen ondarea. Beste xehetasun batzuk ere utzi zituen Álvaro zehazturik, hau da, nola nahi zuen gauzak egitea hiltzen zenean. Dagokion unean irakurriko da testamentua, jakina, baina esana utzi zuen hil eta handik hogeita lau ordura gutun bat irakurri behar zela bere azken borondateak azaltzeko, eta horrek, esatea atrebentzia ez bada, asko

errazten dizkie gauzak oinordekoei eta senideei, lehen irakurraldi horretan testamentua publikoa egin baino lehen jakingo baitute xedapenen berri, eta testamentua osatzen duen klausulan ageri denez, hiru hilabete barru izango da irakurraldi publiko hori.

Manuelek begiratua jaitsi zuen, harrimena eta ezintasuna nahasten zituen keinu batean.

–Gela bat erreserbatzera ausartu gara, hiriko hotel batean, zuk ez zenuen denborarik izango-eta halako gauzetarako. Dei bat egin dugu familia osoa bihar goizean nire bulegoan bil dadin, dokumentu hau irakurtzeko xedeaz. Automobil bat bidaliko dugu hotelera zure bila. Etzi lurperatuko da gorpua, As Grileiras pazoko familia-kanposantuan.

Lehertuko zitzaion Manueli burua.

–Baina zer lurperatze eta lurperatzeondo? Zeinek erabaki du hori? Niri ez dit inork ezer galdetu. Esan beharko dut nik ere zer edo zer, ez? –esan zuen ahotsa pixka bat jasoz, inporta gabe atezainak aditzen ote zion ala ez.

–Familiaren tradizioa da... –hasi zen Doval azalpenak ematen.

–Inporta zaizkit asko niri tradizioak eta alukeria horiek, zein uste dute horiek direla...? Ni senarra naiz.

–Ortigosa jauna –eten zuen Griñánek–, Manuel –esan zuen adiskidetu nahian bezala–, horixe da Álvaroaren xedapenetako bat, haren nahia zen bere familiaren kanposantuan hobiratzea.

Ia bortizkeriaz ireki ziren une hartan Griñánen eta haren idazkariaren atzean itxita zeuden ate kulunkariak, eta begiratuzera bueltatu beste erremediorik ez zuten izan hiru gizonek. Berriz ere, bi guardia zibil. Oraingo honetan, bi gizon, bata mutikoa ia, bestea berrogeita hamarrak ondo paseak. Gaztea, mehe-mehea; adinekoa, berriz, guardia zibil baten parodia

izan zitekeen. Metroa eta hirurogeita bost ere ez zituen neur-tuko, agian beste garai batzuetako aztarrena, polizia hain zo-rrotza ez zenekoa bere kideen altuerari zegokionez, baina orobat zen duda egitekoa utziko ote zizkion gaur egun Úbe-dako Akademiako sarrera-proba gogorrak gainditzen uni-forme primeran lisatuaren itxura martzialaren azpian nekez ezkututzen zen sabel irtenak. Eta, erramate gisa, hari zuri ugari sumatzen hasten ziren bibote bat ageri zuen goiko ezpaina-ren gainean; hari zuriak ageri zituen halaber lokietan eta pa-tilletan, zeinak, itxura guztien arabera, mozketa-erakusgaiak aspaldian berriztatu ez zituen bizargin batek moztuak baitzi-ren, labanaz seguru asko.

Guardia zibil zaharrak mespretxuzko begiratu bat egin zuen Doval eta Griñánen trajeen aldera, eta galdetu baino gehiago, ia-ia berretsi zuen:

–Nogueira tenientea, guardia zibila. Álvaro Muñoz de Dá-vilaren senideak?

–Beraren lege-ordezkarriak gara –jakinarazi zion Griñánek, guardiak jaramonik egin ez zion esku bat luzatuz–. Manuel Ortigosa –esan zuen, esku berarekin seinatatzuz– senarra da.

Guardiak ez zuen harrimenezko keinua ezkutatu.

–Senarra, zerarena...? –esan zuen, behatz lodia besabu-ruaren gainetik jasoz eta atzealdeko toki hipotetiko bat seina-latzuz. Nazka-begiratu bat egin zion beste guardiari, baina, orri garbi baten bila baitzebilten hura bere ohar-koaderno txikian, ez zuen desiraturiko babesia izan. Ez zion itxuraz adorerik kendu–. Ez genuen besterik behar –esan zuen ahopean.

–Arazoren bat duzu horrekin? –galdetu zion Manuelek, kokotsa jasoz.

Erantzun ordez, lagunaren konplizitatea bilatu zuen osterá guardiak, eta hark, oraingo honetan, besaburuak jaso zituen, ez baitzuen oso ondo entenditzen zer zen hura dena.

–Zaude lasai, forentsearen mahaiaren gainean dagoena da hemen arazoak dituen bakarra –esan zuen, legegizonen disgustua sorraraziz eta are gehiago iltzaraziz Manuelen begiratu bere begietan–. Galdera batzuk egin behar dizkizut.

Manuelek baietz egin zuen.

–Noiz ikusi zenuen azkenekoz?

–Herenegun, arratsaldeko azken orduan, bidaiari abiatu zenean. Madrilen bizi gara.

–Madrilen... –errepikatu zuen tenientek, gazteak oharak behar bezala hartzen zituela segurtatuz aldi berean.

–Noiz egin zinen azkenekoz berarekin harremanetan?

–Atzo gauean, ordu batak aldera, telefonoz deitu zidan, eta hamar edo hamabost minutuz aritu ginen hizketan.

–Atzo..., gauean... Esan al zizun non zegoen edo nora zihoan?

Manuelek segundo batzuk hartu zituen erantzun aurretik.

–Ez, hemen zegoenik ere ez nekien, Bartzelonan zela uste nuen, bezero batekin bilera batean elkartzeko. Publizista da... zen, kanpaina bat egin zuen hotel-kate batentzat eta...

–Bezero batekin.

Krudela eta iraingarria gertatzen zitzaion Manueli guardiak bere hitzak errepikatzen zituen modu nekatu hura, nahiz eta ulertzen zuen, guardiaren doinu arin burlazkoagatik baino areago, engainatu zutela agerian jartzen zuen frogagatik agerikoaren krudelkeriagatik zituela sentipen haiek.

–Zertaz hitz egin zenuten? Gogoan duzu zer esan zuen?

–Ez genuen gauza jakinez hitz egin, oso nekatua zegoela esan zidan, eta etxeratzeko gogoz zegoela...

–Igarri al zenion bereziki urduri, ernegatuta, haserre ote zegoen?

–Ez, nekatua besterik ez...

–Esan al zizun eztabaidaren bat izan ote zuen inorekin?

–Ez.

–Zure... senarrak... ba al zuen etsairik, mendekatu nahi zuen norbait edo?

Manuelek nahasirik erreparatu zien legegizonei erantzun aurretik.

–Ez. Ez dakit. Ez, nik dakidala. Zer dela-eta galdera horiek? –erantzun zuen Manuelek leher eginda.

–Ez, berak dakiela... –errepikatu zuen tenienteak.

–Ez al didazu ezer esan behar? Zergatik galdetzen didazu Álvaroren etsaiez? Baina zuk uste duzu...?

–Berrets al dezake inork zu gaur goizaldeko ordu batean Madrilen zinela?

–Esan dizut Álvarorekin bizi nintzela, eta hura Bartzelonan omen zen. Bakarrik bizi ginen eta atzo ez nintzen atera, ez nintzen inorekin egon, eta, hortaz, ez, ezin dut justifikatu Madrilen nintzenik, nahiz eta zure lankideek baietz esan ahal izango dizuten, hantxe nintzela albistea ematera etorri direnean. Baina hau guztia zergatik?

–Gaur egun jakin genezake zein den telefono baten kokagunea deia beste batekin gurutzatzen den unean, ehun bat metro gorabeherarekin. Ba al zenekien?

–Primeran iruditzen zait, baina ez dut entenditzen hau dena zertara datorren, esango al didazu zer pasatzen den? Zure lankideek esan didate Álvaro lo geratu zela bolantean, zati zuten batean errepidetik atera zela eta ez zela beste ibilgailurik istripuan nahasirik. –Etsipenezkoa zen kasik Manuelen doinua, erotu egiten zuen guardiaren jokamoldeak, beti beste galdera batekin erantzun behar hark.

–Nola ateratzen duzu bizimodua?

–Idazlea naiz –erantzun zuen Manuelek nekatuta.

Guardiak, burua alde batera makurtuta, irribarre txiki bat egin zuen.

–Oso afizio polita. Eta bizimodua ateratzeko zer egiten duzu?

–Oraintxe esan dizut, idazlea naiz –esan zuen Manuelek berriz, pazientzia galtzen hasita. Morroi hura ergel hutsa zen.

–Idazlea... –errepikatu zuen–. Zer kolore eta modelotakoa da zure autoa, jauna?

–BMW urdin bat da. Esango al didazu gauza susmagarri-rik izan ote den nire senarraren heriotzan?

Erantzun aurretik, gazteak azken oharra hartu zuen arte itxoin zuen guardia zaharrenak.

–Pertsona bat trafiko-istripu batean hiltzen denean, tokian bertan dekretatzen du epaileak hilotza jasotzea, ez da autopsiarik egiten, ez bada aski zantzu badela bestelako kausak izan litezkeela susmatzeko. Zure... senarraren –hasperen egin zuen– autoaren atzealdean bada mailatu txiki bat, duela gutxi egina, beste ibilgailu baten pinturaren transferentzia-rekin, eta...

Ate kulunkariak Manuelen atzean zabaldu ziren, eta beste guardia uniformedun bat sartu zen, guardia lodiaren azalpenak etenez.

–Zertan ari zara, Nogueira?

Bi guardia zibilak nabarmen tenteago jarri ziren.

–Kapitaina, hau Manuel Ortigosa da, zenduaren senidea, oraintxe heldu da Madrildik. Deklarazioa hartzen ari nintzen.

Kapitainak pauso bat gehiago eman zuen, bi guardiak baino aurrerago jarriz, eta esku sendo bat luzatu zion Manueli.

–Ortigosa jauna, asko deitoratzen dut izan duzun galera eta Nogueira tenienteak bere presarekin egin ahal izan dizun traba –erantsi zuen, erantzukiz betetako begiratu bat eginez guardiari–. Nire lankideek esan dizuten bezala, batere dudarik ez dago zure senarraren heriotza istripuzkoa izan dela, eta ez dela beste ibilgailurik izan tartean.

Bere gainekoaren irudi zabalak partez ezkututzen zuen arren, ikusi ahal izan zuen Manuelek Nogueiraren bibotearen azpian agertu zen nahigabe-keinua.

–Baina oraintxe bertan esan dit-eta tenienteak gauza susmagarririk izan ez balitz ez zutela hona ekarriko...

–Tenientea okerreko konklusiora heldu da –esan zuen kapitainak, aipaturikoari begiratzera makurtu gabe ere–. Bere posizioaren eta familiaren begiramenez ekarri dute hona, oso familia ezaguna eta estimatua baita eskualde osoan –azaldu zuen gizonak.

–Autopsia egingo diote?

–Ez da beharrezkoa izango.

–Ikus nezake? –erregutu zuen Manuelek.

–Jakina, nik lagunduko dizut –esan zuen kapitainak.

Esku bat besaburuan ipinita eta pixka bat bultzatuz, lau gizonen artean igaroz gidatu zuen kapitainak Manuel ate kullunkarien aldera.

Zuria zen hoteleko gela. Dozena-erdi bat burko zabaltzen zen ia ohearen erdiraino. Argi-sorta osoa zegoen piztua –argi puntualak, argi zenitalak, giroko argiak–, eta ohea distirarazten zuen eta ia-ia espejismora heltzen zen sentipen bat eragiten zuten. Goiz hartan etxeaz jabetu eta, itsugarri, Lugo-rainoko ia bostehun kilometroetan lagundu zion eguzki islandiarraren luzapen mingarria zen argi hura. Lugon, zeru arreak pausaldi bat eman zien Manuelen begiei, eta, migraian gertatzen den bezala, mundua ehunka aurpegiko –aurpegi lausoak, faltsuak denak– prisma batean zehar ikusten ari zelako sentipenari.

Ia argi guztiak itzali zituen, erantzi zituen zapatak, eta, minibar urria miatu ondoren, whisky-botila bat eskatu zuen

gelen zerbitzura. Ez zion itzuri egin zerbitzariaren doinu muturuak ezetz erantzun zionean, galdetu baitzion nahi al zuen botila osatu jateko zerbaitekin, ezta nolako keinuz aztertu zuen gela sorbaldaren gainetik whiskia ekartzera etorri zenean, zer bezerok ekarriko dituen arazoak dakienaren begi trebearekin.

Lehentxeago, ospitalearen eta hotelaren arteko bide osoan jarraitu zuen Griñánen erretolika atergabeak, notarioak hoteleraino lagundu nahi izan zion-eta, Manuelen hutsune, zulo guztiak, hark jakin behar zuen eta Álvaro kontatu ez zion guztia osatzeko eginahal alferrekoan. Manuelek hoteleko harrera-mahairaino egin zituen pauso guztiak zaindu zituen notarioak, eta zain zuten Doval, gauza guztiez arduratu ondoren. Oraindik ere luzatu ziren bi legegizonak igogailuen aurrean, halako batean Griñán konturatu bide zen arte Manuelek ikaragarri nekatua behar zuela egon eta seguruena bakarrik nahiko zuela geratu.

Logelan bakarrik, errazio bikoitza zerbitzatu zuen Manuelek likido horixkatik, eta, oinak arrastaka eramanez, oheraino joan zen. Ohea ireki gabe, bizkarralde lodi bat eratuz ipini zituen burko guztiak, haien gainean etzan eta bi zurrutadatan edan zuen basoaren edukia, botika balitz bezala. Agondu zen, joan zen berriz idazmahaira eta beste kopa bat zerbitzatu zuen. Ohera itzuli aurretik, berriz pentsatu eta botila ere eraman zuen. Begiak itxi eta birao bat bota zuen. Be-tazalak estututa ere, gaueko eguzki madarikatu hura bereizten zuen, erredura baten arrastoa erretinan, arrasto distiratsua eta lausoa, ektoplasma zital baten presentzia balitz bezala.

Borrokan zebil kion gogo, pentsatzeko premiaren eta ez pentsatzeko erabaki sendoaren artean. Berriz bete zuen basoa, eta halako abiadaz hustu zuen, non goragale batek emanda

justu-justu eutsi baitzion botaka hasi gabe. Begiak itxi zituen, eta arinduta ikusi zuen desagertzen hasia zela eguzkiaren distira. Ordain gisa, egun hartan izandako elkarrizketa guztien oihartzuna etorri zitzaion berriz burura, nahasturik denak egiazko oroitzapenekin eta eratuz zihoazkion beste batzuekin, garrantzirik gabeko dozenaka xehetasun, bere unean kasurik egin ez ziena, edo agian bai, zentzua hartzen hasten ziren neurrian. Álvaroren aita hil zenetik igarotako hiru urteak, haren anaia gaztearen heriotza handik egun gutxira...

Behin, irailean, hiru urte lehenago, mundua bukatzen zela uste izan zuen, seguru uste izan zuen Álvaro betiko galdu zuela. Xehetasun guztiakin bizi zitzakeen osteraren minutu guztiak: haren aurpegi desitxuratua, munduak bezala pisatzen zuen zama baten adierazgarri, eta nolako baretasun diskordanteaz jakinarazi zion egun batzuetarako alde egin beharra zela. Neurritasun ezin aztoratuzko hura, arduraz tolesten zituena bitartean maletan ipiniz zihoan arropak. “Nora zoaz?”. Isiltasuna galdera guztiaren ondoren, keinu goibela eta begiratu urruna bizitza partekatzen zuen gizonaren presentzia gaudituz. Alferrik izan ziren erreguak, eskaerak, mehatxuak. Sarreran jadanik, beregana itzuli zen. “Manuel, ez dizut behin ere ezer eskatu, baina orain nitaz fidatzea eskatu behar dizut. Fidatzen zara nitaz?”. Baietz esan zion Manuelek, ederki jakinik bizkorregi esan zuela, eta ez zela erreserbarik gabeko baietza, ez zela osorik zintzoa hura esatean. Zer egin zezakeen bestela? Maite zuen gizona etxetik zihoan, behatzen artean urtzen zitzaion, gatz bustia nola. Une hartan ez zegoen segurua zen beste gauzarik, ez bazen ezerk ez ziola Álvarori eutsiko, joan egingo zela nolanahi ere, eta tratu bat onartzeko konpromisoa zela hura lotzeko balioko zion euskarri bakarra, harekin lotuko zuen gauza bakarra une hartan luzatzen zion askatasun eta konfiantzazko katea izatea arriskatuz.

Maleta txiki bat hartuta atera zen Álvaro etxetik, eta emozio-ekaitz bortitz batean murgildua utzi zuen Manuel, zeinean kezka eta beldurra, itzuliko ez zelako segurtasuna nahasten baitziren. Azken egunetan egindakoen berrikuste gaixobera, oreka hautsi zen une hauskorren bila, bien arteko zortzi urteko aldearen zama sumatuz, bere liburu eta bizimodu lasaiarenganako nahitasun gehiegizkoari leporatuz kulpa, agian gehiegitxo izan baitziren Álvarorentzat, gazteagoa, guapoagoa, zeragoa izanik; eta mundua bere inguruan nola erortzen zen ikusteko izan zuen gaitasun-falta madarikatuz. Bost egun eman zituen Álvarok kanpoan, eta gaueko, presakako deien, erdizkako azalpenen egunak izan ziren, azkeneko unean atera zion konfiantzazko aginduan babestuak.

Ziurgabetasunaren ondoren frustrazioa eta oinazea etorri ziren, txandaka-txandaka bata eta bestea, eta, arreba hil zenez geroztik, Manuelek betiko joana zuela uste zuen emozioen kontrol-falta erabatekora heldu zen. Laugarren gauean zain egon zen guttiz etsita, ausartu gabe une bakar batez ere telefonoa askatzera, etsi gaiztoaren mende erabat, dena galdutzat eman eta azken errematetzat lepoa eskaintzen den puntu horretan.

Deiari erantzun zionean ohartu zen bere ahotsean ageri zen erreguaz.

–Pare bat egun esan zenuen... Laugarren eguna da gaur. Álvarok hasperen egin zuen erantzun aurretik.

–Zerbait gertatu da, espero ez nuen zerbait, eta gauzak nahasi egin dira.

Adorea hartuta, xuxurlaka, galdetu zuen:

–Álvaro, itzuliko zara? Egia esan.

–Jakina itzuliko naizela.

–Ziur zaude?... –Apustua bikoiztu zuen, dena gal zeza-keela jakinik, eta aukera bat oparitu zion—: ezkonduak gaudelako baldin bada...

Linearen beste aldean, Álvarok airea sakon barneratu eta ozen eta mantso kanporatu zuen, ezin nekatuago. Edo ernegatua ote zegoen? Haserre, traba egiten zion zerbaiti aurre egin eta irteera bat eman behar ziolako?

–Itzuliko naiz hori delako nire tokia, hori delako egin nahi dudana. Maite zaitut, Manuel, eta zurekin egon nahi dut. Munduko beste edozer gauza baino gehiago nahi dut etxera itzuli, eta gertatzen denak ez du zerikusirik batere gurekin.

Hainbesteko desesperazioa zegoen ahots hartan, non Manuelek sinetsi egin baitzion.